

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EKONOMIA GARAPENAREN ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

28/2026 Foru Dekretua, uztailaren 28koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onestea Arabako Lurralde Historikoan, iberiar otsoek, sai arreek eta ehizaz kanpoko beste espezie basati batzuek egin dituzten erasoek aziendari sorrarazitako kalteengatiko kalte-ordainen oinarri arautzaileak

Arabako azaleraren ehuneko 28,2 Europako Natura 2000 Sare Ekologikoan, Kontserbazio Bereziko Eremuetan eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuen barruan dauden naturagune babestuei dagokie. Naturagune horiek guztiak zaintzea Europako arauditik datorren betebeharra da, ondoko manuetan oinarrituta: Kontseiluaren maiatzaren 21eko 92/43/EEE Zuzentaraua, habitatat naturalak eta basoko flora eta fauna kontserbatzeari buruzkoa («Habitaten Zuzentaraua»), eta azaroaren 30eko 2009/147/EE Zuzentaraua, basoko hegaztiak kontserbatzeari buruzkoa («Hegaztien Zuzentaraua»).

Naturagune horietan, Batasunaren intereseko habitatak eta espezieak daude, horien artean, mendiko larreak eta belardiak, bai eta horiei loturik dauden fauna eta florako espezieak ere, horietako batzuek babes zorrotza dutela.

Hala eta guztiz ere, Araban, abeltzaintza estentsiboak habitat jakin batzuk kontserbatzen laguntzen du, hala nola larreak, eta horietatik dira –kasu batzuetan– Europar espezieen aberastasun handiena duten inguruneak. Hain zuzen ere, karezko larreak ditugu landare mota gehien dituzten landare komunitateak; artropodo ugari bizi dira haietan, eta larre eremuetara egokituta dauden hegazti eta ugaztun askoren elikatze inguruneak dira.

Europako Ingurumen Agentziak adierazi duenez, larre naturalen mota bereziko eremu gutxi batzuk izan ezik, Europako larre gehienetan larratzeak eta belar mozketak egiten dira, eta jarduera horiei heldzea funtsezkoa da mikrohabitatak eta bertan bizi diren espezieak babestuko baditugu.

Gure lurralde historikoan, abeltzaintza, oro har, eta abeltzaintza estentsiboa edo erdi-estentsiboa, bereziki, jarduera ekonomikoak dira, eta gizartean, ekonomian, kulturen eta ingurumenean duten garrantziagatik babestu behar dira, are gehiago kontuan hartuta abeltzaintza sektoreak gaur egun dituen baldintzatzaile kaltegarriak eta egiturazko arazoak.

Duela ia hiru hamarkadatik hona, Arabako Foru Aldundia, sai arreen eta iberiar otsoen erasoek abeltzaintzari eragiten dizkioten kalteez jabetu eta gero, eta egoera horrek abeltzainei sorrarazten dizkien kalteen jakitun, konpentsazio tresnak onetsi ditu eragindako abeltzaintza ustategietarako. Horretarako, sai arreek eta iberiar otsoek etxeko abereei eragindako kalteengatiko kalte-ordainak eman zaizkie eta, orain arte, Diputatuen Kontseiluaren ekainaren 10eko 61/2008 Foru Dekretuak (otsoen erasoek etxeko abereei kalteak eragiteagatik abeltzaintzako ustategien titularrentzako kalte-ordainen izapideak arautzeko oinarriak onesten dituen) eta Diputatuen Kontseiluaren urriaren 14ko 90/2008 Foru Dekretuak (Arabako Lurralde Historikoan sai arreek aziendei egindako kalteengatiko ordainak xedatzen dituen arautegia onartzen duena) arautu dituzte.

Sai arrea (*Gyps fulvus*) interes bereziko espezieetat jotzen du Eusko Jaurlaritzaren uztailaren 9ko 167/1996 Dekretuak, Basa eta Itsas Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrenda arautzen duenak. Era berean, Hegazti Basatien Kontserbazioari buruzko 2009ko azaroaren 30eko 2009/147/EE Zuzentarauaren I. eranskinean jasota dago.

Irailaren 20ko TED/980/2021 Aginduaren bidez, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren Biodibertsitate, Baso eta Desertifikaziorako Zuzendaritza Nagusiak babes bereziko erregimenean dauden basa espezieen zerrenda eta espezie mehatxatuen Espainiako katalogoa garatzen duen otsailaren 4ko 139/2011 Errege Dekretuaren eranskina aldatu zuen. Une horretan, iberiar otsoaren Espainiako populazio guztiak jaso zituen zerrendan, salbuespenik gabe, baita Duero ibaiaren iparraldean bizi direnak ere. Beste alde batetik, apirilaren 1eko 1/2025 Legeak, galerak eta elikagaiak alferrik ez galtzeari buruzkoak, azken xedapenetako hemeretzigarrenean berriz aldatu du zerrenda hori, eta Duero ibaiaren iparraldean bizi diren iberiar otsoaren Espainiako populazioak berriro ere baztertu ditu zerrendatik.

Aurrekoa gorabehera, Euskal Autonomia Erkidegoko araudiak, espeziearen jarraipena ziurtatzeko kudeaketa tresna propioa den aldetik, iberiar otsoa Basa eta Itsas Fauna eta Flora Espezie Mehatxatuen Euskadiko Katalogoan jasota dauka egun, eta interes bereziko espezie hartzen jarraitzen du. Adierazpen hori Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2020ko martxoaren 2ko Aginduaren bidez egin zen.

Euskadiko Natura Ondarea Babesteko azaroaren 25eko 9/2021 Legearen 67.2 artikulua xedatzen duenez, Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioek hainbat jarraibide bete behar dituzte espezie basatiak kontserbatzeko, besteak beste, dagoeneko desagertu diren espezie autoktono basatiak berreskuratzea eta haien arteko bizikidetzat sustatzea. Nolanahi ere den, Arriskuan dauden Espezieen Euskal Katalogoan jasota dauden espezieek eragindako kalteak eta arazo sozioekonomikoak prebenitzeko, gutxiagotzeko edo konpentsatzeko ekintzak egin eta beharrezko neurriak hartu ondotik gauzatu da.

Iberiar otsoek eta sai arreek eragindako kalteengatiko kalte-ordainak arautzen dituzten foru dekretuak indarrean hasi zirenetik igaro den denboran metatutako eskarmentuak iradokitzen digu horiek aldatu egin behar direla; indarrean dauden kategoriak eta baremoak eguneratzea, egokitzea eta sinplifikatzea, eta arau bakarrean bateratzea, azken batean, bi dekretuek taula batzuk jasotzen dituztelako eranskinetan, non kalteak zenbateko berdina esleituta kuantifikatzen diren, eta bi-biek prozedura eta izapidetze ia berdina jasotzen dituztelako.

Foru dekretu berriak orain arteko arau hutsunea ere konpondu nahi du; izan ere, hutsune horrek eragotzi egiten du gaur egungo araudian jasota dauden eta ehizaz kanpokoak diren beste espezie basati batzuek eragindako erasoek noizbehinka eragindako kalteei erantzutea, kasu batzuetan, nahikoa handiak izan direnak. Halakoak foru dekretu honetan berariaz aintzat hartu izanak aukera ematen du, egiatan, hutsune hori betetzeko.

Era berean, laguntzak edo dirulaguntzak ematearen inguruan, orain arte erabili den kontzeptuzko hermeneutika alde batera utzi da eta paradigma aldaketa bati ekin nahi zaio, Auzitegi Gorenak administrazioaren ondare erantzukizunaren arloko jurisprudentzia berrienean jasotako irizpideak erakundearen gain hartuta, babes bereziko araubideren bat duten eta ehizaz kanpokoak diren espezie basatiek eragindako kalteak direla eta, kalte horiek ahalik eta modu objektiboenean konpentsatuta gera daitezen kalte-ordain zuzen eta ekitatiboak baliatuz, kalte-ordainen kontzeptuak eta horien zenbatekoa eguneratuz, kasuan-kasuan, galerak sortu den kaltearen, lortu ez den irabaziaren eta eraso horiei atxikitako lan kostuen arabera ordaindu egingo baitira.

Ingurumari zuzentzaile horretan, xedapen honek atzeraeraginezko ondorioa izango du 2025ean eta 2026an Arabako Lurralde Historikoan iberiar otsoen, sai arreen eta ehizaz kanpoko beste espezie basati batzuen erasoek azierari eragindako kalteengatiko kalte-ordainak eskatzeko. Atzeraeraginezko ondorioa printzipio hauen aplikazio zorrotz eta bidezkoan oinarritzen da: interesdunaren aldeko atzeraeragina, administrazioaren ondare erantzukizuna, segurtasun juridikoa eta berdintasuna eta erabateko erreparazioa. Horrela, ekidin egingo da denbora tarte horretan gertatu diren erasoek eragindako kalteak estaldurarik gabe edo estaldura desberdinaz geratzea. Hala berean, xede berarekin eta aipatutako printzipio berberetan oinarrituta, ofiziozko eguneratzea aurreikusi da 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera gertatu diren ziozko kalte-ordainak eskatzeko prozedurari dagokionez, baldin eta prozedura horietan behin betiko ebazpena eman bada dekretu hau argitaratu eta indarrean jarri aurretik.

Interesdunaren aldeko atzeraeraginaren printzipioa berariaz jasota dago Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 39.3 artikuluan. Printzipio horren arabera, salbuespenez, atzeraeragina onar dakieke egintzei, baldin eta interesdunari ondorio mesedegarriak sorrarazten badizkiote –kasu honetan, ustategien titularrek iberiar otsoen, sai arreen eta ehizaz kanpoko beste espezie basati batzuen erasoek eragindako kalteengatiko konpentsazio ekonomikoa jasotzeko eskubidea–, baldin eta egitatezko kasuak gertatu badira egintzaren eraginkortasuna atzeratzen den datan –kasu honetan, 2025eko urtarrilaren 1etik foru dekretu hau argitaratu eta indarrean jarri arte izan diren erasoez ari gara–, eta atzeraeragin horrek beste pertsona batzuen eskubide edo interes legitimoak kaltetzen ez baditu, kasu honetan bezala.

Ildo horretan, gogorarazi behar da Konstituzioaren 9.3 artikuluan jasotako zehapen arau kaltegarrien edo eskubideak murrizten dituztenen atzeraeragina debekatzeak ez diela eragiten herritarrei mesede egiten dieten sustapen edo kalte-ordainen arauari, eta azken kasu horretan, atzeraeragina ahalbidetzen dela, helburu soziala eta konpentsaziozkoa betetzeko tresna gisa. Are gehiago Administrazioaren ondare erantzukizunaren printzipioa kontuan hartzen bada, zeinaren arabera, administrazioak espezie jakin batzuk babesten baditu eta pertsonen espezie horien aurkako defentsa neurriak hartzea eragozten badie, ezin du espezie horiek eragindako kalteengatiko erantzukizuna bazterrean utzi, eta eragindako kalteak ordaindu beharko ditu, justifikaziorik gabeko ondare kalterik gerta dadin saihesteko.

Honako foru dekretu hau izapidetzean, Arabako Foru Aldundiaren xedapen orokorrak egiteko prozedura onetsi zuen otsailaren 28ko 6/2023 Foru Dekretuaren 3. artikulua xedatzen dituen araugintza kalitatearen eta erregulazio onaren printzipioak bete dira.

Beharrian eta eraginkortasun printzipioak betetzeko, xedapen honen helburua behar bezala justifikatuta dago ehizaz kanpoko espezieek eragindako kalteak arintzeko erakundeen ahalegin irmoaren bidetik, kalte-ordainak finkatuta.

Proportzionaltasun printzipioa ere errespetatu egiten da, konpentsazio ekonomikoaren modu hori baita helburua lortzeko aukerarik egokiena.

Era berean, segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzen da, eta behar bezala justifikatuta geratzen da bai printzipio hori ordenamendu juridikoan txertatzea, bai printzipio hori ematen duen organoaren eskumena.

Gardentasun printzipioari jarraikiz, entzunaldiari eta kontsulta publikoaren izapidetza lotu zaizkio proiektua.

Efizientzia printzipioaz denaz bezainbatean, proposatzen den arauketak, bere izaera dela eta, ez dakar administrazio karga osagarriarik edo alferrikakorik herritar guztientzat, ez eta baliabide publikoen kontsumo handiagorik ere.

Sinpletasun eta ulergarritasun printzipioei dagokienez, proposatutako testua modu egituratuan idatzi da, hizkuntza argia eta ulergarria erabiliz.

Era berean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarriko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan oinarritzen diren emakumeen eta gizonen arteko berdintasun printzipioak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegitutzako Dekretuaren edukia eta Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Foru Plana (2022-2026) ere kontuan hartu dira.

Xedapen iragankor bakarraren aplikazioan, aurreikusten da 110.000,00 eurokoa izango dela kreditua 2025eko urtarrilaren 1aren osteko erasoen ondoriozko kalte-ordainen bukatutako prozeduren eguneraketari aurre egiteko eta hasita egon arren, xedapen hau indarrean hasi arte ebatzteke dauden prozedurei aurre egiteko. Horrenbestez, zenbateko hori erreserbatu behar da Arabako Foru Aldundiaren 2026ko gastuen aurrekontuko “15303. G/172151/22699160/Kalte ordainak eta habitaten kontserbazioa” partidaren kargura.

Ondorioz, nahitaezko txostenak ikusita, Ekonomiaren Garapenaren eta Jasangarritasunaren foru diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernuaren Kontseiluak gaur egindako bilkuran eztabaidatu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Arabako Lurralde Historikoan, iberiar otsoen, sai arreen eta ehizaz kanpoko beste espezie basati batzuen erasoek aziendari eragindako kalteengatik oinarri arautzaileak eta kalte-ordainak eskatzeko prozedura onestea. Oinarriak Eranskinean jasota daude, eskaera-ereduarekin.

Bigarrena. 110.000,00 euro erreserbatzea Arabako Foru Aldundiaren 2026ko ekitaldiko gastu aurrekontuko 15303. G/172151/22699160 partidaren kargura, 2025eko urtarrilaren 1aren osteko erasoengatik kalte-ordainen bukatutako prozeduren eguneraketari aurre egiteko eta hasita egon arren, xedapen hau indarrean hasi arte ebatzteke dauden prozedurei aurre egiteko.

Lehen xedapen iragankorra. 2025eko urtarrilaren 1etik foru-dekretu hau indarrean jarri arte animaliei egindako erasoengatik aurreko araudiaren arabera aitortutako konpentsazio ordainketen aparteko osagarria

1. Dekretu hau indarrean jarri aurretik, 2025eko urtarrilaren 1etik dekretu honen bidez onartutako erregulazio berria indarrean jarri arte gertatutako gertakariengatik aurreko araudiaren arabera animaliei egindako erasoengatik konpentsazio ordainketa bat aitortu zaien onuradunek ordainketa horren aparteko osagarri bat aitortzeko eskubidea izango dute, xedapen iragankor honetan ezarritako baldintzetan.

2. Aparteko osagarriaren helburua izango da honako hauen arteko alde ekonomikoa konpentsatzea: (i) gertaera eragile beragatik dekretu honek ezarritako erregulazio berrian aurreikusitako irizpideak, moduluak eta zehazteko arauak aplikatuz aitortzea legokiokeen zenbatekoa; eta (ii) aurreko araudiaren arabera emandako ebazpen irmoaren bidez bere garaian benetan aitortutako zenbatekoa.

3. Osagarri hori soilik aitortuko da baldin eta egitate eragileari erregulazio berria aplikatzearen ondoriozko zenbatekoa handiagoa bada aurreko araudiaren arabera emandako ebazpen irmoak aitortutako zenbatekoa baino; bestela, ezingo da inolako ordainketarik egin, eta ezin izango da murriztu, berrikusi edo ondoriorik gabe utzi dekretu hau indarrean jartzearen ondorioz aurreko araudiaren babesean ebazpen irmo bidez aitortutako zenbatekoa.

4. Aparteko osagarria aitortzeko, Ekonomia Garapenaren eta Jasangarritasunaren Saileko titularrak administrazio ebazpena emango du, xedapen iragankor honetan aurreikusitako denbora eta eduki baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren, eta jatorrizko ebazpen irmoaren espedientean dauden datuak hartuko dira oinarritzat, hargatik eragotzi gabe araudi berrian aurreikusitako kudeaketa, kontrol eta justifikazio arauen arabera egin beharreko egiaztapen jarduketak.

5. Aparteko osagarriak jatorrizko ebazpen irmoz aitortutako konpentsazio ordainketaren izaera juridiko bera izango du.

6. Aparteko osagarria aurrekontu kreditu aplikagarrien kargura ordainduko da, aitorten ebazpena eman ondoren, eta aurreko erregulazioan konpentsazio ordainketa horietarako oro har aurreikusitako ordainketa bitartekoaren bidez ordainduko da.

Bigarren xedapen iragankorra. Arabako Lurralde Historikoan 2025eko urtarrilaren 1etik foru dekretu hau indarrean jarri arte izandako erasoengatik izapidetzen ari diren eskaerei eta espedienteei aplikatu beharreko araubidea

1. Arabako Lurralde Historikoan 2025eko urtarrilaren 1etik foru dekretu hau indarrean jarri arte izandako erasoengatik izapidetzen ari diren eskaerei eta espedienteei aplikatu beharreko araubidea.

Arabako Foru Aldundian dagoeneko aurkeztu diren eta Foru Dekretu hau indarrean jarri aurretik ebatzteke dauden kalte-ordainen eskaera horiek Foru Dekretu honetako kalte-ordaingarriak eta irizpide eta modulu ekonomikoak aplikatuz izapidetuko dira, eta eskaera aurkezteko unean indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen baldintzei eta aurkeztu beharreko dokumentazioari eutsiko zaie.

2. Arabako Lurralde Historikoan 2025eko urtarrilaren 1etik foru dekretu hau indarrean jarri arte gertatutako erasoengatiko eskaerarik egin gabeko aldez aurreko komunikazioak.

Foru Dekretu hau indarrean jarri aurretik interesdunek Arabako Foru Aldundiari peritatzeko erasoak jakinarazi eta, erregulazio berri hau indarrean jarri ondoren, oraindik kalte-ordainaren eskaera oraindik aurkeztu ez dutenen espedienteak, foru dekretu honetan aurreikusitakoaren arabera izapidetuko dira, aurkezteko epea izan ezik, aurreko araudian aurreikusitakoaren arabera arautuko baita hori: sai errearen erasoen kasuetarako, 15 egun baliodunekoa izango da epea erasoa gertatu zenetik zenbatzen hasita eta otsoaren erasoen kasuetarako, 10 egun baliodunekoa, ikuskapena egiten denetik zenbatzen hasita. Eskabidea epe horietatik kanpo aurkeztzen bada, ez da onartuko, epez kanpokoa izateagatik.

Xedapen indargabetzaile bakarra

Indargabeturik geratzen dira Diputatuen Kontseiluaren ekainaren 10eko 61/2008 Foru Dekretua, otsoen erasoen zioz, etxeko abereetan kalteak jasaten dituzten abeltzaintzako ustiatgien titularren kalte-ordainak izapidetzeko oinarri arautzaileak onetsi zituen; Diputatuen Kontseiluaren urriaren 14ko 90/2008 Foru Dekretua, Arabako Lurralde Historikoan sai arreek azientari eragindako kalteak ordaintzeko araudia onetsi zuena, eta Foru Dekretu honen aurka doazen maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak.

Azken xedapena

1. Ekonomia Garapenaren eta Jasangarritasunaren Saileko titularrari edo, indarrean dagoen egituraren arabera, kalte-ordain horiek izapidetu eta ebatzeko eskumena duenari ahalmena ematen zaio foru dekretu hau garatzeko eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak eman ditzan.

2. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko uztailaren 31

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ekonomia Garapenaren eta Jasangarritasunaren Saileko foru diputatua

SARAY ZÁRATE FERNÁNDEZ DE LANDA

Natura Ingurunearen zuzendaria

MARIA JOSÉ MADEIRA GARCÍA



I. ERANSKINA

Sai arreek, iberiar otsoek eta ehizaz kanpoko beste espezie basati batzuek Arabako Lurralde Historikoan egiten dituzten erasoek azindari eragindako kalteen ziozko kalte-ordainei buruzko oinarri arautzaileak eta eskatzeko prozedura

I. titulua. Xedapen orokorrak.

1. artikulua. Xedea eta helburua.

1. Arabako Lurralde Historikoan, iberiar otsoen, sai arreen eta ehizaz kanpoko beste espezie basati batzuen erasoek azindari eragindako kalteak konpentsatzeko oinarri arautzaileak eta kalte-ordainak eskatzeko prozedura ezartzea da Foru Dekretu honen xedea.

2. Haren helburua biodibertsitatea babesteko interes orokorreko helburuari laguntzea da, Arabako Lurralde Historikoan iberiar otsoen, sai arreen eta ehizaz kanpoko beste espezie basati batzuen populazioak abeltzaintza jarduera arruntarekin bateragarri eginez.

II. titulua. Kalte ordaingarriak eta pertsona onuradunak

2. artikulua. Kalte ordaingarriak

1. Honako hauek izan daitezke kalte-ordaina jaso dezaketen kalteak:

a) Kalte sortuberriaren erako kalteak:

1. Animalia hilak Eraso aitortuan hil diren animaliak dira.

2. Albaitariaren aginduz hildako animaliak. Adierazitako erasoan hil ez diren arren, jasotako zaurien ondorioz albaitariaren aginduz hilarazi behar diren animaliak dira.

3. Berreskuratu ezin diren animaliak. Aitortutako erasoaren ondorioz, beren kabuz bizirik iraun ezin duten animaliak dira edo, bestela, ekoizpen itxaropenak bete ezin dituztenak.

Berreskuratu ezin diren animaliei, albaitariaren aginduz hildakoei edo erasoan hildakoei ematen zaien kalte-ordain bera emango zaie.

4. Abortuak eta jaio gabeko animaliak Kalte-ordaina jasotzeko modukoak izango dira aitortutako erasoaren ondorengo 15 egutegiko egunetan gertatzen diren animalien abortuak, baldin eta aitortutako erasoaren ondorioz badira, betiere bi inguruabarrak betetzen direla egiaztatzen bada albaitariaren ziurtagiriaren eta/edo horretarako emandako aditu txostenaren bidez.

Kalte-ordaina jasotzeko modukoak izango dira, era berean, jaiotzen ez diren animaliak, baldin eta aitortutako erasoaren ondorioz, abortuentzat eskatzen diren baldintza eta betekizun berberak badituzte.



Abortuei eta jaiogabeei kalte-ordaina emango zaie, erasoen ondorioz hildakoei eta albaitariaren aginduz hil direnei bezala.

5. Azienda hautatua Liburu genealogiko ofizialetan inskribatutako animaliak dira. Animalia bati eragindako kaltean, animalia hautatutzat jotzeko, baldintza hori egiaztatu beharko da.

6. Desagertutako animaliak. Kalte-ordainen ondorioetarako, honako baldintza hauek betetzen dituztenak hartuko dira animalia desagertutatzat:

- a) Animalia aitortutako erasoaren kokalekuan bazegoela egiaztagarria izatea.
- b) Aitortutako erasoaren ondorengo 15 egunetan, titularrak edo hirugarren batek ez aurkitzea.
- c) REGAn edo dagokion datu base ofizialean alta emanda egotea.
- d) Animalia adinaren txikiagatik, Abeltzaintzako Ustiatagien Erregistroan (REGA) edo datu base ofizial egokian alta emanda ez egon arren, titularrak nahikotasunez egiaztatzea animalia badela, albaitariaren ziurtagiriaren edo legez onar daitezkeen gainerako frogabideen bidez.

Desagertutako animalien kalte-ordainak ezin izango du espezie bereko animalia hilei esleitutako balioaren % 50 gainditu.

7. Albaitaritzak gastuak. Aitortutako erasoaren ondorioz zauriturik atera diren animaliek albaitaritzako arreta jasotzearen ziozko gastuak dira.

Kalte-ordaina jaso ahal izango dute, aldez aurretik egiaztatuta, abeltzainek beren gain hartutako gastuen % 100eraino, espezie bereko animalia hil baten balioaren % 50eko gehieneko mugarekin.

b) Lortu gabeko irabazien ziozko kalteak:

Lortu gabeko irabazien ziozko kaltetzat hartzen dira aitortutako erasoaren ondorioz ustiategiak galerak izatea diru sarreretan, ekoizpenak errendimendu txikiagoa duelako.

c) Laneko kostuen ziozko kalteak:

Laneko kostuen ziozko kaltetzat hartzen dira aitortutako erasoari lotutako laneko kostuak eta kostu ez-materialak.

2. Animaliei egindako erasoen ziozko kalteak ez dira ordainduko espedientearen honako inguruabar hauetakoren bat behar bezala egiaztatzen denean:

- a) Erasoaren berri ez komunikatzea foru dekretu honen 10. artikuluan arautzen den moduan.
- b) Eraso gertatzen den unean, eraso pairatutako animaliak hilda, larriki gaixorik edo zahar-zahar eginda egotea.
- c) Eraso gertatzen den unean, eraso pairatutako animaliek beren burua defendatzeko gaitasuna murriztuta izatea, egoera fisiologiko anomalo baten eraginez.
- d) Hildako animalien heriotza aitortutako erasoari ezin egotzea, edo heriotzaren kausari buruzko zalantza garbiak izatea.



3. artikulua. Kalte-ordainen zenbatekoa zehaztea

1. Kalte sortuberrien ziozko kalte-ordainak kalkulatzeko, Foru Gobernuaren Kontseiluaren maiatzaren 28ko 10/2024 Foru Dekretuaren II. eranskinean onartzen diren moduluak aplikatuko dira. Foru dekretu horren bidez, osasunarekin eta/edo animalien identifikazioarekin zerikusia duten jardura ofizialen ondorioz galera ekonomikoak jasaten dituzten animalien titularrei kalte-ordainak emateko baldintzak onartzen dira (ALHAO, 70. zk., 2024ko ekainaren 21ekoa), edo haren ordezkotza araudia. Erasoak eranskinean ageri diren moduluetan berariaz jasota ez dauden abereei eragiten badie, Estatuko araudi sektorialean argitaratutako indarreko moduluak edo baremoak erabiliz aterako da kalte-ordaina, eta, halakorik ezean, elkargo profesionalek egiaztatutako peritazioen bidez.

2. Lortu gabeko irabaziengatik eta erasoari lotutako lan kostuengatik kalte-ordainak oinarri hauetan ezarritako moduluak aplikatuz kalkulatu dira. Modulu horiek eguneratu ahal izango dira, kalte-ordainak ebazteko eskumena duen foru saileko tituluarraren foru agindu bidez,

4. artikulua. Sai arreen erasoen ziozko kalte ordainak eta zenbatekoaren zehaztapena

1. Sai arreen erasoek sorrarazitako kalteak ordaintzeko moduko kaltetzat hartuko dira ardi, ahuntz, behi eta zaldi aziendei eragiten zaizkienak.

Kalte-ordain horien zenbatekoa kalkulatzeko, Foru Gobernuaren Kontseiluaren maiatzaren 28ko 10/2024 Foru Dekretuaren II. eranskinean onetsitako moduluak aplikatuko dira. Foru dekretu horren bidez, osasunarekin eta/edo animalien identifikazioarekin zerikusia duten jardura ofizialen ondorioz galera ekonomikoak jasaten dituzten animalien titularrei kalte-ordainak emateko baldintzak onartzen dira (ALHAO, 70. zk., 2024ko ekainaren 21ekoa) edo hura ordeztzen duen araudia.

Erasoak eranskinean ageri diren moduluetan berariaz jasota ez dauden abereei eragiten badie, estatuko araudi sektorialean argitaratutako indarreko moduluak edo baremoak erabiliz aterako da kalte-ordaina, eta, halakorik ezean, elkargo profesionalek egiaztatutako peritazioen bidez.

5. artikulua. Iberiaren otsoen erasoen ziozko kalte ordainak eta zenbatekoaren zehaztapena

Iberiar otsoen erasoek eragindako kalteak ordaintzeko modukotzat hartuko dira honako kontzeptu hauek:

1. Kalte sortuberria dela eta:

Iberiar otsoek ardi, ahuntz, behi eta zaldi aziendei egiten dizkien erasoek sorrarazitako kalteak kalte sortuberri gisa ordainduko dira.

Kalte sortuberrien ziozko kalte-ordainak kalkulatzeko, Foru Gobernuaren Kontseiluaren maiatzaren 28ko 10/2024 Foru Dekretuaren II. eranskinean onartzen diren moduluak aplikatuko dira. Foru dekretu horren bidez, osasunarekin eta/edo animalien identifikazioarekin zerikusia duten jardura ofizialen ondorioz galera ekonomikoak jasaten dituzten animalien titularrei kalte-ordainak emateko baldintzak onartzen dira (ALHAO, 70. zk., 2024ko ekainaren 21ekoa) edo hura ordeztzen duen araudia.



Erasoak aurreko paragrafoan adierazitako moduluetan berariaz jaso gabeko abereei eragiten badie, Estatuko araudi sektorialean argitaratutako moduluak edo baremoak erabiliz aterako da kalte-ordaina, eta, halakorik ezean, elkargo profesionala egiaztatutako peritazioen bidez.

2. Lortu ez den irabazia dela eta:

Iberiar otsoek ardi eta ahuntz aziendei egiten dizkien erasoek sorrarazitako kalteak kalte lortu gabeko irabazi gisa ordainduko dira.

Kalte-ordain horien zenbatekoa honela kalkulatu da:

- Animalia kumedunen eta esnegintzakoen lortu gabeko irabaziak irizpide hauen arabera zenbatetsiko dira:

- Ardi/ahuntz aziendei loturiko esne ekoizpenaren lortu gabeko irabazia REGAn ekoizpen eta ugalketa gisa eta ekoizpen mistoaren edo esnearen sailkapen zootekniko gisa inskribatuta dauden ustategietarako kalkulatu da, Q letran inskribatuta badaude, ARCA jasota dauden esnetarako latxa ardien eta ahuntzen batez besteko datuen arabera:

- Ardiak: batez beste, 180 litroko esnealdia eta 140 jezte egun (1,30 litro egunean), litroko 0,50 euroko balioarekin.

- Ahuntzak: batez beste, 586 litroko esnealdia eta 286 jezte egun (2 litro egunean), litroko 0,50 euroko balioarekin.

Espezia	Esne ekoizpena (€)	Ernaldia/Abortuak (€)
Ardiak	$[140 - (\text{erditzearen eta erasoaren arteko egunak})] \times 1,30 \times 0,50$	50
Ahuntzak	$[286 - (\text{erditzearen eta erasoaren arteko egunak})] \times 2 \times 0,50$	50

- Edoskitzaroan dauden emeei gertaturiko kalteei dagokienez, lortu gabeko irabazia esne ekoizpenaren galeraren arabera soilik kalkulatu da.

- Kumedun dauden emeei erditu aurretik gertaturiko kalteei dagokienez, lortu gabeko irabazia esne ekoizpenaren eta ernaldia etetearen (abortua) arabera kalkulatu da.

- Eskatzaileak agiri bidez egiazta badezake erantsitako taulan adierazitako esne ekoizpena baino handiagoa izan duela esne kontrol ofizialeko datuak erabiliz, horrela adierazi beharko du kalte ordainaren eskabidean, eta, horrekin batera, esne kontrol ofizialaren dokumentazioa aurkeztu beharko du.

3. Laneko kostuak direla eta:



Iberiar otsoek ardi, ahuntz, behi eta zaldi aziendei egiten dizkien erasoek sorrarazitako kalteak kalte laneko kostu gisa ordainduko dira.

Kalte-ordain horien zenbatekoa honela kalkulatu da:

Nekazaritzako eta abeltzaintzako laneko kostua erreferentziako errentaren arabera: 18 euro/ordu

Espezia	Abelburuen kop./Ustiatagia	Orduak	% 80, 18 €/ordu
Ardi azienda/Ahuntz azienda	0-30	5	72,00
Ardi azienda/Ahuntz azienda	31-80	6	86,40
Ardi azienda/Ahuntz azienda	>80	8	115,20
Behiak/Zaldiak	0-20	5	72,00
Behiak/Zaldiak	>20	6	86,40

6. artikulua. Ehizaz kanpoko beste espezie batzuen erasoek eragindako kalteak

1. Salbuespenezko egoeretan, iberiar otsoa eta sai arrea ez diren espezie basatien erasoek azientari eragindako kalteak konpentsatzeko kalte-ordainak eman ahalko dira.

2. Kasu horietan, zerbitzu eskuduneko teknikariek honako alderdi hauei buruzko txosten arrazoitua bidaliko dute:

- Kalte eragin duen espeziea.
- Eragindako kalteen zehaztapena eta zenbatespena, esanguratsuak ote diren adierazita.
- Erasoak prebenitzeko helburuz, eragindako ustiatagiak darabiltzan prebentzio neurri egokien azalpena.
- Erasoa gertatu deneko inguruabarrak saihestezinak izan diren.
- Balorazio ekonomikoa, eragindako abeltzaintza ustiatagiak eskatu eta gero.

3. Kalte-ordainak ebazteko eskumena duen foru departamentuko titularren foru aginduaren bidez, non behar bezala justifikatzen diren salbuespenezko inguruabarrak, foru dekretu honetan jasotako kalte ordaingarriak ezarri ahal izango dira, kasu zehatz horretan eta denbora tarte jakin baterako aplikatzekoak.

7. artikulua. Kalte-ordainen zenbatekoa gutxitzea

1. Prozedura izapidetzen ari den bitartean, ustiatagiaren onuradunak edo titularrak abeltzaintzako edo ingurumeneko jokabide edo jardunbide desgokiak izan dituela antzematen bada, kalte-ordainen zenbatekoa murriztu ahalko da, eta horretarako txosten arrazoitua egin eta espedientean txertatuko da.



Era berean, iruzurrezko jokabiderik nahita egin dela egiaztatuz gero, aitortutako erasoari dagokion kalte-ordain osoa ere kendu ahalko da.

2. Ustiategi edo pertsona onuradun berekoak diren animalien aurkako erasoak behin eta berriz gertatzen direla ikusten bada, inguruabar zehatzak aztertu ahalko dira, onuradunak edo ustiategiaren tituluarrak erasoak prebenitzeko beharrezkoak diren eta gomendatzen diren baliabideak ote dituen ebaluatzeke, eta horren inguruko txosten arrazoitua txertatuko da espedienteen, eta, hala badagokio, onuradunaren mesedetan hartu beharreko neurriak edo bitartekoak zehaztuko dira.

8. artikulua. Bateragarritasuna eta mugak

1. Foru dekretu honetan arautzen diren kalte-ordainak bateragarriak dira helburu bera duten beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekin, beste edozein administrazio edo erakunde publikok edo pribatuk, autonomia erkidegokoek, estatukoek, Europar Batasunekoek edo nazioarteko erakundeek emanda.

2. Aurrekoa gorabehera, kalte-ordainen zenbateko osoa ezin izango da, inola ere, banaka edo aurreko paragrafoan adierazitako zenbatekoekin batera, foru dekretu honetan xedatutakoa aplikatuz indarrean dauden zenbatekoena baino handiagoa.

3. Nolanahi ere den, eskatzaileak laguntzak izapidetzen dituen zerbitzuari eman beharko dio helburu berari atxikita hartu duen edozein laguntza, sarrera edo baliabideren berri.

9. artikulua. Onuradunak eta bete beharreko betekizunak

1. Foru dekretu honetan arautzen diren kalte-ordainen onuradun izan ahalko dira pertsona fisiko edo juridikoak eta nortasun juridikorik gabeko entitateak, baldin eta, kalte-ordaina jaso dezakeen egitatea gertatzen denean, hurrengo bigarren eta hirugarren paragrafoetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

2. Betekizun orokorrak:

- a) Arabako Foru Aldundiaren Abeltzaintza Ustiategiaren Erregistroan (REGA) behar bezala inskribatuta dagoen abeltzaintzako ustiategi baten titularra izatea edo, hala badagokio, dagokion administrazioaren erregistroan.
- b) Erasoak jasan duten animalien identifikazioari eta osasunari buruz indarrean dauden arauak betetzen direla egiaztatzea.

3. Berariazko betekizunak:

- a) Kalte-ordainaren xede diren animaliak behar bezala identifikatuta eta ofizialki erregistratuta izatea, indarrean dagoen araudi espezifikoan ezarritakoaren arabera.
- b) Aitortutako erasoak Arabako Lurralde Historikoko gertatu izana.
- c) Aitortutako erasoak iberiar otsoek, sai arreek edo, hala badagokio, ehizarako ez diren beste espezie basati batzuk, 6. artikuluan xedatutakoaren arabera arautuak.



- d) Erasoak jakinarazi izana kalte-ordaina ebazteko eskumena duen foru departamentuari, 10. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera.
- e) Hala badagokio, adierazitako erasoak gertatu den lekuan edo inguruan larre aprobetxamendurako eskubidea izatea.

4. Inola ere ezin izango dira kalte-ordainen onuradun izan kapital publikoa duten enpresa publikoak edo partaidetutakoak.

III. titulua. Prozedura

10. artikulua. Erasoaren komunikazioa

1. Interesdunak, erasoak gertatu dela jakin bezain laster, erasoari buruzko informazio guztia komunikatu beharko dio zerbitzu eskudunari, horretarako berariaz jarri eta Arabako Foru Aldundiaren Interneteko atarian argitaratzen den telefono zenbakia erabiliz.

Nolanahi ere, komunikazio hori gehienez ere 24 orduko epean egin beharko da, erasoaren berri izaten denetik zenbatzen hasita, eta, gutxienez, honako informazio hau eman beharko da:

- a) Eragindako azientaren edo etxeko abereen titularraren identifikazioa.
- b) Komunikazioetarako aukeratu den harremanetarako bitartekoa.
- c) Espeziea, ustezko adina eta erasoak pairatutako animalien kopuru zehatza, edo, artean zehaztu ezin bada, erasoak pairatutako gutxi gorabeherako kopurua.
- d) Gertaeraren data eta kokapena (udalerria, biztanle erakundea, aurkintza edo bazterra, koordenatuak edo poligonoa, eta lurzatia, halakorik ez badago).

2. Komunikazioa lehenengo paragrafoan arautzen den epean eta moduan egiten ez bada, kalte-ordaina eskatzeko eskubidea galduko da, salbu eta espedientearen behar bezala egiaztatzen bada komunikazioa eragotzi duen ezinbesteko kausaren bat gertatu edo bestelako arrazoi justifikaturen bat badagoela.

3. Erasoaren komunikazioa, ondorio guztietarako, erantzukizunpeko adierazpentzat hartuko da, eta ez da inola ere hartuko kalte-ordaina emateko prozedura hasteko eskaeratzat. Eskabidea, hain zuzen ere, hurrengo artikuluetan ezartzen den denboran, moduan eta betekizunak betez aurkeztu beharko da.

4. Komunikazioa jasotakoan, eskumena duen zerbitzuak hura erregistratuko du, eta emandako informazioa eta datuak egiaztatze beharrezkoak diren ikerketak egingo ditu, bai eta erasoaren inguruabarrak argitzeko baliagarriak eta egokiak diren guztiak ere.

Ikerketa jarduketan artean, egiaztapena egingo da bertatik bertara, adierazitako erasoaren inguruabarrak egiaztatu eta argitzeko. Hala, erasoak pairatu duten animalien titularrak edo berak eskuordetzen duen pertsonak joan beharko du lekura, eta bertaratzen diren teknikariek eskatzen dizkieten datu eta argibide guztiak eman beharko dizkie, txostena egoki prestatu dezaten. Azkenik, txostena espedientearen erantsiko zaio.



5. Bertatik bertarako ikertze eta egiaztatze jarduketak ahalik eta ondoen egin daitezen ez eragozteko, hildako animalien titularrak honako jarduketa hauek egin beharko ditu nahitaez:

- a) Aurkitu dituen tokitik ez mugitzea, aurreko paragrafoan esan den bertatik bertarako egiaztapena egiten den arte.
- b) Ahalik eta lasterren estali eta babestea, bertatik bertarako egiaztapena egiten den arte, sarraskijaleek animalia jan ez ditzaten.
- c) Belarritako edo krotalaren zenbakia idaztea eta eraso komunikatzen den unean adieraztea.

Jarduketa horiek egin ezean, kalte-ordaina eskatzeko eskubidea galdu egingo da, salbu eta espedientean behar bezala egiaztatzen bada komunikazioa eragotzi duen ezinbesteko kausaren bat gertatu edo bestelako arrazoi justifikaturen bat badagoela.

11. artikulua. Kalte-ordainaren eskabidea aurkezteko epea, tokia eta era

1. Interesdunek gehienez hiru hilabeteko epean aurkeztu beharko dute kalte-ordainaren eskabidea, erasoaren komunikazioa egin zen egunetik zenbatzen hasita.

2. Kalte-ordainaren eskabideak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen (aurrerantzean, 39/2015 Legea) edo hura ordeztzen duen araudiaren arabera aurkeztuko dira:

- a) Interesduna pertsona fisikoa bada, eskabidea eta beharrezko dokumentuak aurrez aurre edo bitarteko elektronikoak erabiliz aurkezteko izango du.
- b) Interesduna pertsona juridikoa edo nortasun juridikorik gabeko erakundea bada, eskabidea bitarteko elektronikoak erabiliz aurkeztu beharko du nahitaez.

3. Arabako Foru Aldundiak izapide horretarako ezartzen duen berariazko inprimaki edo ereduaren arabera bete beharko da nahitaez eskabidea.

4. Eskabideak aurkezteko lekuak honako hauek dira:

- a) Aurrez aurre, Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean edo urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua ezarritako beste edozeinetan.
- b) Elektronikoki, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan horretarako prestatutako berariazko izapide elektronikoa erabiliz (<https://egoitza.araba.eus/eu/>).

12. artikulua. Nahitaezko dokumentazioa

1. Interesdunek 9. artikulua dakartzan betekizun orokorrak eta berariazkoak betetzen dituztela egiaztatu beharko dute.

2. Arabako Foru Aldundiak kontsultatuko edo eskatuko ditu, hala badagokio, eskatzen diren baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten agiriak, interesdunak eskabidean berariaz horren aurka egiten badu izan ezik, 39/2015 Legearen 28.2 artikulua ezarritakoa aplikatuz.



Esandako agiriak bitartekaritza plataformen bidez ofizioz lortzeko zailtasunak edo arazoak sortuko balira, administrazioak, salbuespen gisa, agiri horiek aurkezteko eskatu ahalko dio interesdunari.

3. Interesdun batek aurreko paragrafoan adierazitako kontsultaren aurka egiten badu, eskatzen diren baldintzak betetzen dituela egiaztatu beharko du, honako dokumentazio hau igorrita:

- a) Arabako Foru Aldundiaren Abeltzaintza Ustategien Erregistroaren (REGA) inskripzio ziurtagiria edo dagokion administrazioaren erregistroarena.
- b) Eraso pairatutako animalien inskripzio ziurtagiria.
- c) Hala badagokio, aitortutako eraso gertatu deneko lekuan edo inguruan larre aprobetxamendurako eskubidea duela egiaztatzen duen titulu juridikoa, ebazpena edo ziurtagiria.
- d) Hala badagokio, zerbitzu eskudunak adierazten duen dokumentazio gehigarria, galdatzen diren baldintzak betetzen direla behar bezala egiaztatu ez bada.

4. Diruz lagungarriak diren kalte-ordainak jasotzeko eskubidea honela egiaztatu ahal izango da:

- a) Zerbitzu izapidegileak zuzenean eskatuko dizkio REGAri eragindako aleen inskripzio ziurtagiriak, eskatzaileak aurka egin ezean. Kasu horretan, eskatzaileak berak aurkeztu beharko ditu ziurtagiri horiek.
- b) Eraso pairatu duten animaliek gutun genealogikoa badute, erreklamazioa egin duten pertsonen animalien gutun genealogikoa aurkeztu beharko dute, edo, adinagatik identifikaziorik ez badute, amaren gutun genealogikoa.
- c) Albaitaritza gastuak albaitarien errezeten eta/edo faktura egokien bidez egiaztatuko dira. Animalia batzuk badaude, albaitaritza zerbitzuaren baterako fakturak onetsiko dira, betiere gastuak argi eta garbi banakatzen badira zauritutako animalia bakoitzarentzat, haien adina eta, hala badagokio, banakako identifikazioa adierazita.

13. artikulua. Izapidetzea, ebazpena, jakinarazpena eta ordainketa

1. Natura Ondarearen Zerbitzuak edo Arabako Foru Aldundian indarrean dagoen egitura dekretuaren arabera izapidetzeko eskumena duen zerbitzuak izapidetuko ditu espedienteak.

2. Ekonomia Garapenaren eta Jasangarritasunaren Saileko foru diputatuari dagokio prozedura ebaztea, edo, indarrean dagoen egitura eta araudiaren arabera, eskumena esleitura duen organoari.

3. Hasteko eskaera jaso eta gero, izapidetzeko eskumena duen zerbitzuak egiaztatuko du foru dekretu honetan eskatzen diren baldintzak betetzen diren ala ez.

4. Eskabideak akatsen bat badu edo zehatza ez bada, 10 egun balioduneko epea emango dio eskatzaileari, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, eskabidea zuzen dezan.

Hala egiten ez badu, eskabidean atzera egin duela ulertuko da, horretarako ebazpena eman ondoren, 39/2015 Legearen 68. artikulua xedatutakoarekin bat etorriz.



5. Prozedura amaitzen duen ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da, eskaera behar bezala aurkeztu dela jasotzen den egunetik zenbatzen hasita.

6. Eskabidea ebazteko gehieneko epea igaro eta berariazko ebazpenik jakinarazi ez bada, eskabidea administrazio isiltasunez ezetsi dela ulertuko da; hala ere, 39/2015 Legearen 24.3 b) artikuluaaren arabera, isiltasunaren ezespena ez da loteslea izango epea amaitu ondoren ematen den esanbidezko ebazpenerako.

7. Ebazpena hartu ondoren ordainduko dira kalte-ordainak.

14. artikulua. Egiaztapena eta ikuskapena

Indarrean dagoen egituraren arabera, kalte-ordain horien izapidetzea esleitua duen foru sailak beharrezkoak diren egiaztapen eta ikuskapen administratiboak eta landa azterketak egingo ditu espedienteen dagoen informazioaren egiazkotasuna berresteko, bai eta foru dekretu honetan eskatzen diren betekizun eta baldintzak betetzen direla egiaztatzeko ere.

15. artikulua. Betekizunak ez-betetzea eta kalte-ordainak berrikustea

1. Foru Dekretu honetan ezarritako betekizunak bete ezean edo horretarako baldintzak bete gabe kalte-ordaina eskuratuz gero, kalte-ordaina jasotzeko eskubidea galduko da, eta, hala badagokio, jasotako zenbatekoa eta aplikatzekoak diren legezko interesak Arabako Foru Ogasunari itzuli beharko zaizkio, urtarilaren 25eko 3/2023 Foru Arauak, Aurrekontuei buruzko Arau Orokorrak edo hori ordeztzen duen xedapenak eta hura garatzen duen araudiak xedatutakoaren arabera.

Kalte-ordainak zuzenbide publikoko diru sarreratzat hartuko dira legezko ondorio egokietarako.

2. Kalte-ordainak emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira, emakidaren ebazpena aldatu ahal izango da.

16. artikulua. Araubide juridikoa

Foru dekretu honetan arautzen ez diren alderdi guztiei dagokienez, modu osagarrian aplikatuko dira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea eta haren izaera dela eta aplikagarri diren gainerako arauak.

 Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus	Iberiar otsoen, sai arreen eta ehizaz kanpoko beste espezie basati batzuen erasoek aziendari eragindako kalteengatiko kalte-ordainen eskaera Solicitud de indemnización por daños causados a ganado por ataques de lobo ibérico, buitre leonado y otras especies silvestres no cinegéticas
--	---

**Ekonomia Garapenaren
eta Jasangarritasunaren Saila**

**Departamento de Desarrollo Económico
y Sostenibilidad**

Zein espezie izan da ustez erantzulea (jarri X dagokion lekuan)				Especie presuntamente responsable (marcar lo que proceda)	
☐	Otsoa Lobo	(Canis lupus)	☐	Saia Buitre	(Gyps fulvus)
☐	Beste espezie bat (zehaztu) Otra especie (indicar)				

Eskatzailearen datuak Datos de la persona solicitante			
Izen-abizenak Nombre y apellidos			NIF
Helbidea (kalea eta zk.) Domicilio (calle y nº)			
Herria Localidad			P.K. C.P.
Harremanetarako telefonoa Teléfono de contacto			
Posta elektronikoa Correo electrónico			
Nekazaritza ustiategiaren izena Nombre de la explotación ganadera			
Abeltzaintza Ustiatgien Erregistroko inskripzio zk.(REGA) Nº inscripción en el Registro de Explotaciones Ganaderas (REGA)			

Eskatzaileak, goian zehaztutako abeltzaintza ustiategiaren titular gisa, honakoa,

La persona solicitante, en calidad de titular de la explotación ganadera arriba indicada,

ADIERAZTEN DU: (markatu eta bete dagokiona)

DECLARA QUE: (marcar y rellenar lo que proceda)

☐ Bere jabetzako abereek kalteak jasan dituela Arabako Lurralde Historikoan, ondoren zehazten diren eremuan eta egunean:

☐ El ganado de su propiedad ha sufrido daños en el Territorio Histórico de Álava, en la zona y fecha a continuación especificadas:

Data Fecha			
Zonaren izena Denominación de la zona			
Zona honela dago katalogatuta (partikularra, alokatua, onura publikoko mendia...) Zona catalogada como (particular, arrendado, monte de utilidad pública...)			
Beste datu batzuk Otros datos			

Egiaztasunaren berri emateko, jarraitu hona: <https://egiaztasun.araba.eus/egiaztasun/verificacion>

Egiaztasun kodea Código de verificación
H6KA-LAaW-V6ve-huXS



RE 20/105

1/4

 Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava	IBERIAR OTSOEN, SAI ARREEN ETA EHIZAZ KANPOKO BESTE ESPEZIE BASATI BATZUEN ERASOEK AZIENDARI ERAGINDAKO KALTEENGATIKO KALTE-ORDAINEN ESKAERA
	SOLICITUD DE INDEMNIZACIÓN POR DAÑOS CAUSADOS A GANADO POR ATAQUES DE LOBO IBÉRICO, BUITRE LEONADO Y OTRAS ESPECIES SILVESTRES NO CINEGÉTICAS

- ☐ Kalte-ordainen Foru Dekretuan ezarritako prozedura-ri jarraituz, gertaera horren berri eman zion (Arabako Foru Aldundiari edo erakunde eskuordeari) honako ordu eta egunean:
- ☐ Siguiendo el procedimiento del Decreto Foral de indemnizaciones, comunicó (a la Diputación Foral de Álava o entidad delegada) el suceso en el siguiente día y hora:

Zerbitzua Servicio	Data Fecha	Ordu Hora
-----------------------	---------------	--------------

- ☐ Animaliak **EZ** ziren mugitu peritazioaz arduratzen ziren langileek *in situ* egiaztapena egin zuten arte.
- ☐ Los animales **NO** fueron movidos del lugar donde los encontró hasta el momento en que se practicó la comprobación *in situ* por el personal encargado de la peritación.

Animaliak **mugitu BAZIREN**, ezinbesteko kausak edo justifikatutako kausak **ADIERAZI ETA EGIAZTATU** behar ditu, kalte-ordaina eskatzeko eskubidea ez galtzeko.

Si los animales **Sí** fueron movidos, debe **INDICAR y ACREDITAR** las causas de **fuerza mayor o justificadas** para no perder el derecho a solicitar la indemnización.

Arrazioak: Justifikazioa:
--

Motivos: Acreditación:

- ☐ Peritazioa egiteko langileen bisita izan du honako ordu eta egunean:
- ☐ Recibió la visita del personal encargado de la peritación el día y hora siguientes:

Data Fecha	Ordu Hora
---------------	--------------

- ☐ Kalte-ordainei buruzko Foru Dekretuan ezarritako baldintzak betetzen ditu.
- Erasotako animalien identifikazioari eta osasunari buruz indarrean dauden arauak betetzen ditu.
 - Behar bezala identifikatuta eta ofizialki erregistratuta ditu erasotako animaliak, indarrean dagoen araudi espezifikoaren arabera.
- ☐ Beste laguntza edo diru-sarrera osagarria jaso du eraso horren kalteak estaltzeko (dokumentazioa erantsi da).
- ☐ Erasotako animaliak hautatu gisa katalogaturik daude eta egiaztatzeko gutun genealogikoa dauka.
- ☐ Erasotako azienda baimenduta dago erasoa gertatu den lekuan edo inguruan larreak aprobetxatzeko.
- ☐ Reúne los requisitos establecidos en el Decreto Foral de indemnizaciones:
- Cumple las normas vigentes en materia de identificación y sanidad animal de los animales atacados.
 - Tiene debidamente identificados y oficialmente registrados los animales atacados conforme a la normativa específica vigente.
- ☐ Ha recibido otra ayuda o ingreso complementario para cubrir los daños de este ataque (se adjunta documentación).
- ☐ El ganado atacado está catalogado como selecto y posee su carta genealógica para su acreditación.
- ☐ El ganado atacado se encuentra autorizado para el aprovechamiento de pastos en la ubicación o el entorno donde se ha producido el ataque.

 Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava	IBERIAR OTSOEN, SAI ARREEN ETA EHIZAZ KANPOKO BESTE ESPEZIE BASATI BATZUEN ERASOEK AZIENDARI ERAGINDAKO KALTEENGATIKO KALTE-ORDAINEN ESKAERA SOLICITUD DE INDEMNIZACIÓN POR DAÑOS CAUSADOS A GANADO POR ATAQUES DE LOBO IBÉRICO, BUITRE LEONADO Y OTRAS ESPECIES SILVESTRES NO CINEGÉTICAS
---	---

ESKATZEN DU:**SOLICITA:**

Datu horien arabera dagokion kalte-ordain ekonomikoa:

La indemnización económica que le corresponda conforme a estos datos:

Espezia – Arraza (ardia, ahuntza, behia, zaldia) Especie- Raza (ovino, caprino, bovino, equino)	Abere mota (sexua, adina) Tipo animal (sexo, edad)	Belarritakoaren zk. Nº crotal	Egoera (hilda, zaurituta) Estado (muerto, herido)

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikulua aplikatuz, **Aldundiak kontsultatu edo eskatu ahal izango ditu** bere esku dauden edo beste administrazio batek egin dituen **eskatutako agiriak, salbu eta interesdunak aurka egiten badu**.

En aplicación del artículo 28.2 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, **Diputación podrá consultar o recabar la documentación exigida** que se encuentre en su poder o que haya sido elaborada por otra Administración, **salvo que la persona interesada se oponga**.

☐ **AURKA EGITEN DIOT** Aldundiak betekizunak betetzen dituela egiaztatzen duten dokumentuak biltzeari, eta honako dokumentazio hau **AURKEZTEN DUT**:

- Abeltzaintza Ustategien Erregistroaren (REGA) inskripzio ziurtagiria.
- Erasoa pairatutako animalien inskripzio ziurtagiria.

☐ **ME OPONGO** a que Diputación recabe los documentos acreditativos del cumplimiento de los requisitos y **APORTO** la siguiente documentación:

- Certificado de inscripción en el Registro de Explotaciones Ganaderas (REGA).
- Certificado de inscripción de los animales afectados por el ataque.

